

## Bestelako Xedapenak

### ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

1631

AGINDUA, 2009ko martxoaren 11koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, memoria historikoa berreskuratzeko jarduerak eta proiektuak gauzatzeko diru-laguntzen deialdia egiten eta diru-laguntza horien oinarri arautzaileak ezartzen dituen.

Frankismoaren aurkako memoria demokratikoa eta memoria hori bultzatu zuten errepublika-balioak berreskuratzea, gordetzea eta hedatzea da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren helburu nagusietako bat. Izan ere, gaur egungo euskal gizarte osoak onartzen dituen bizikidetzaren demokratikoen, justiziaren eta berdintasunaren balioak bultzatzeko modu bat da.

Estatu-kolpe faxistak gure herriari eragindako sufrimendua eta haren aurka sortu zen erresistentziako eta borroka demokratikoko mugimenduaren ezagutza historikorako eskubidea dute euskaldunek.

Memoria historikoa ezagutzea memoria horrek bizirik irautea ahalbidetzen du, baita haren balioek isiltasun-aldia gainditu eta egungo gizartean irmo errotzea ere.

Hori dena kontuan izanik, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
ARAU OROKORRAK

#### **1. artikulua.**– Xedea.

1.– Agindu honen xedea honako hau da: batetik, errepublika-balioak eta balio horien memoria historikoa eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan 1931-1977 denbora-tartean demokraziaren eta askatasunaren alde gauzaturiko borrokan balio horiek egindako ekarpena berreskuratzeko, hedatzeko eta ezagutzeko jarduerak eta proiektuetarako diru-laguntzak emateko baldintzen deialdia egitea eta baldintza horiek arautzea.

2.– Diru-laguntza eskatzea eragiten duten proiektuak 2009ko ekitaldian garatu beharko dira.

#### **2. artikulua.**– Diruz lagunduko diren jardunak.

Errepublikaren memoria historikoa berreskuratzeko proiektu eta jarduerak diruz lagundu ahal izango dira, betiere 1. artikuluari jarraiki eta honako jarduera hauekiko bat edo gehiago biltzen badituzte:

1.– Errepresioarekin, erresistentziarekin eta gizarte demokratikoa eraikitzearekin zerikusia duten pertsonak eta gertakizunak oroitzeko edo omentzeko jardunak.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

1631

ORDEN de 11 de marzo de 2009, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se convocan subvenciones para la realización de actividades y proyectos de recuperación de la memoria histórica y se establecen las bases reguladoras de las mismas.

Uno de los principales objetivos del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales es la recuperación, conservación y difusión de la memoria democrática antifranquista y de los valores republicanos que la impulsaron, que no es sino una forma de fomentar estos valores, unánimemente compartidos en la sociedad vasca actual, de convivencia democrática, justicia e igualdad.

Los vascos y vascas tienen derecho al conocimiento histórico del sufrimiento ocasionado por el golpe de estado fascista en nuestro país y el movimiento de resistencia y lucha democrática que generó.

El conocimiento de la memoria histórica permite que ésta sea memoria viva y que sus valores trasciendan el tiempo de silencio y se manifiesten en la sociedad actual como plenamente vigentes.

En virtud de lo cual,

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
NORMAS GENERALES

#### **Artículo 1.**– Objeto.

1.– Es objeto de la presente orden la convocatoria y la regulación de las condiciones de concesión de las subvenciones para actividades y proyectos dirigidos a la recuperación, difusión y conocimiento de los valores republicanos, de su memoria histórica y de su aportación a la lucha por la democracia y la libertad durante el período comprendido entre 1931-1977 tanto en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco como fuera de ella.

2.– Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el ejercicio 2009.

#### **Artículo 2.**– Actuaciones a subvencionar.

Podrán subvencionarse proyectos y actividades dirigidas a la recuperación de la memoria histórica republicana, en los términos del artículo 1 y que incluyan el desarrollo de una o varias de las actividades siguientes:

1.– Actuaciones conmemorativas o de homenaje de personas y de acontecimientos relacionados con la represión, la resistencia y la construcción de la sociedad democrática.

2.– Ondare demokratikoa —materiala eta ez-materiala— gordetzeko eta berreskuratzeko jardunak: testigantzen datu biografikoak —batez ere ikus-entzunezko euskarrian— sortzea eta 1. artikuluan bilduriko gaiei buruzko lekuak, monumentuak, aztarnak, izenak eta beste dokumentu batzuk aurkitzea eta haien errolda egitea hartzen ditu barnean.

3.– Diktaduraren errepresioarekin, erbestearekin, erresistentziarekin eta balio demokratikoen errealitate eta egoerarekin loturiko gertakizunak eta prozesuak gogoratzerako bideraturiko jardunak.

4.– Hedatze- eta prestakuntza-jardunak: biltzarrak, sinposioak, jardunaldiak, mintegiak eta aldi baterako erakusketak antolatzea, ikus-entzunezko produktuak, argitalpenak eta hezkuntza-proiektuak hartuko ditu barnean.

### **3. artikulua.**– Zenbatekoa.

1.– Deialdi honetara bideraturiko gehieneko zenbatekoa laurogeita hamar mila euro (90.000) da guztira eta 2009ko aurrekontuen kargura izango da.

2.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen bolumenak ez du gaindituko kontsignazio hori edo zenbateko hori Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari dagokion aurrekontu atalaren barruan eguneratzenetik —betiere indarreko legedian aurreikusitako kredituak lotzeko edo aurrekontuak aldatzeko erregimenari jarraiki— ateratzen dena. Gizarte Ongizateko zuzendariak ebazpena emango du aurreko guztiaren berri emateko.

3.– 2. artikuluan aipatutakoen artean onartzen diren jarduera eta proiektuen kostuaren % 100eko laguntza eman ahal izango da, jarduera bakoitzaren egoeraren arabera eta betiere gehienez hamabost mila euro (15.000) emanda jarduera bakoitzeko. Jarduera edo proiektu bakoitzari dagokion behin betiko zenbatekoa balioespen-fasean lortutako puntuaziorikiko proportzioan zehaztuko da, honako formula honi jarraiki: proiektuetako batek lortutako puntuazio handienaren balioaren artean lortutako puntuazioa, onartutako eskatutako zenbatekoarekin biderkatuta.

4.– Diru-laguntzen zenbatekoa —diru-laguntza bakarrarena edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandakoei batuta— ez da izango garatuko den diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

### **4. artikulua.**– Erakunde onuradunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko honako erakunde hauek eskatu ahal izango dituzte deialdi honetan araturiko laguntzak: beren estatutuetan edo erakundea eratzeko dokumentuetan bilduriko helburuen artean errepublika-balioak defendatzea, hedatzea eta sustatzea edo/eta frankismoaren aurkako memoria historikoa berreskuratzea jasota duten erakundeek.

2.– Actuaciones de conservación y recuperación del patrimonio democrático, material e inmaterial: incluye actividades destinadas a la creación de datos biográficos de testimonios, especialmente en soporte audiovisual, como a la localización y censo de lugares, monumentos, vestigios, nombres u otros documentos sobre la temática incluida en el artículo 1.

3.– Actuaciones de investigación dirigidas a la reconstrucción de hechos y procesos relacionados con la represión de la dictadura, con el exilio, la resistencia y la realidad y la situación de los valores democráticos.

4.– Actuaciones de difusión y formación: incluirá la organización de congresos, simposios, jornadas seminarios y exposiciones temporales, productos audiovisuales, edición de publicaciones y proyectos educativos.

### **Artículo 3.**– Importe.

1.– El importe total máximo destinado a la presente convocatoria es de noventa mil euros (90.000), con cargo a los presupuestos del 2009.

2.– El volumen de las ayudas previstas en la presente convocatoria no superará la citada consignación o la que resulte, dentro de la sección presupuestaria correspondiente al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante resolución de la Directora de Bienestar Social.

3.– Se podrá subvencionar hasta el 100% del coste de las actividades y proyectos aprobados mencionados en el artículo 2, de acuerdo con las circunstancias de cada actividad y hasta un importe máximo de quince mil euros (15.000) por actividad. La cuantía definitiva que corresponde a cada actividad o proyecto se determinará en proporción a la puntuación obtenida en la fase de valoración, siguiendo la siguiente fórmula: puntuación obtenida entre el valor de la puntuación mayor obtenida por uno de los proyectos y multiplicado por el importe solicitado aprobado.

4.– El importe de las subvenciones, aisladamente o en concurrencia con otras de otras entidades públicas o privadas, no podrá superar el coste de la actividad subvencionada a desarrollar.

### **Artículo 4.**– Entidades beneficiarias.

Podrán solicitar las ayudas reguladas en esta convocatoria las entidades registradas en la Comunidad Autónoma Vasca, en cuyos estatutos, o documentos constitutivos de las mismas, aparezca como una de sus finalidades la defensa, difusión y promoción de los valores republicanos y/o la recuperación de la memoria histórica del antifranquismo.

**5. artikulua.**– Eskaerak aurkeztea eta epea.

1.– Eskaera guztiak eskabide-eredu orokorrean formalizatuko dira. Eredu hori Agindu honen I. eranskinean dago. Eskabidearekin batera, Agindu honetan eskatzen den dokumentazio guztia aurkeztuko da.

Eskabidea eta dokumentazio guztia Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuordeari igorri behar zaizkio, Lurralde Historiko bakoitzeko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Ordezkaritzan aurkeztuta, bai zuzenean, bai 30/1992 Legean -azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena- aurreikusitako bideen bitartez.

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau argitaratzen den egunaren biharamuniketik zenbatzen hasita.

**6. artikulua.**– Dokumentazioa eta eskakizunak.

1.– Agindu honetan azaltzen diren eta diru-laguntzak eskatu nahi dituzten elkarte eskatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Eskabide-orria (I. eranskina) behar bezala beteta.
- b) Egin beharreko jarduera azaltzeko memoria zehatza.
- c) Proiektuari dagozkion sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza.
- d) Beste erakunde batzuek proiektuan parte hartzen dutela egiaztatzeko dokumentazioa, egoera hori gertatzen bada.
- e) Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiri original eguneratuak edo kopia konpultsatuak –eskabidea aurkezten den eguna baino, gehienez, hiru hilabete lehenago emanak– zergabetebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean dituela frogatzen dutenak. Irabazi-asmorik gabeko Erakundeak Gizarte Segurantzaren sistemaren enpresaburu gisa erregistratuta ez badaude, idazki bat aurkeztu beharko dute erakunde horietako legezko ordezkariak sinatua. Idazki horretan erantzukizun-aitorpena egingo dute eta adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko edo Gizarte Segurantzaren ordezkari sistemekiko betebeharraren egunean daudela. Nolanahi ere, diru-laguntza emateko, egiaztatzeko eta ordaintzeko fase guztietan gai horri buruz eskatzen zaizkion egiaztapen guztiak aurkeztu beharko ditu onuradunak.
- f) Erakundearen IFZ.
- g) Eskatzaileak erakundearekiko duen legezko ordezkariaren egiaztapena.
- h) Erakundearen legezko ordezkariaren NANA.
- i) Erakundearen estatutuak eta eraketa-akta.
- j) Helburu bererako bestelako finantziario-iturririk

**Artículo 5.**– Presentación de solicitudes y plazo.

1.– Todas las solicitudes deberán formalizarse en el modelo general de solicitud, anexo de esta orden. A la solicitud se acompañará toda la documentación requerida en la presente orden.

La solicitud y la documentación completa se dirigirán al Viceconsejero de Asuntos Sociales, presentándose en las Delegaciones de Vivienda y Asuntos Sociales existentes en cada uno de los territorios históricos, bien directamente o por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento administrativo Común.

2.– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la presente convocatoria.

**Artículo 6.**– Documentación y requisitos.

1.– Las asociaciones solicitantes que deseen optar a la concesión de las subvenciones a las que se refiere la presente Orden deberán presentar la siguiente documentación:

- a) Impreso (anexo I) de solicitud debidamente cumplimentado.
- b) Memoria explicativa y detallada de la actividad a realizar.
- c) Presupuesto detallado de ingresos y gastos del proyecto.
- d) Documentación que acredite la implicación de otras entidades en el proyecto, de existir ésta.
- e) Certificaciones actualizadas originales o copias compulsadas de la Hacienda Foral y Tesorería General de la Seguridad Social correspondientes, emitidos con no más de tres meses de antelación a la fecha de la solicitud, acreditativas del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social. En el supuesto de que las Entidades sin ánimo de lucro no estuvieran inscritas como empresarios en el sistema de Seguridad Social, deberán presentar un escrito suscrito por el representante legal de las mismas en el que efectuarán una declaración responsable, indicando que se encuentran al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social o con los sistemas alternativos de la Seguridad Social. No obstante, el/la beneficiario/a está obligado/a a presentar cuantas certificaciones sobre este extremo se le exijan durante todas las fases del procedimiento de concesión, justificación y liquidación de la subvención.
- f) NIF de la entidad.
- g) Acreditación de la representación legal del/la solicitante respecto de la entidad.
- h) DNI del/la representante legal de la entidad.
- i) Estatutos y acta de constitución de la entidad.
- j) Declaración jurada de la existencia o no de otras

ba ote dagoen egiaztatzen duen zinpeko aitortpena, finantziazioaren zenbatekoa eta, hala badagokio, ebatzke dauden laguntza-eskabideak egiaztatzen dituen.

k) Hirugarrenaren alta, behar bezala beteta.

l) Dagokion erregistroan erregistratuta dagoela adierazten duen egiaztatzea.

m) Zinpeko aitortpena, zigor- eta administrazio-erlolan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez dagoela adierazten duena, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean ere ez dagoela, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

2.– Erakunde berak eskabide bat baino gehiago aurkeztu badu, eskaera horietako dokumentazio komuna behin bakarrik aurkeztu beharko da.

**7. artikulua.**– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Eskabidea aurkeztuta, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak hutsen bat edo gabeziaren bat atzematen badu, hamar eguneko epean huts edo gabezia horiek zuzentzeko errekerimendua egingo dio elkarte edo erakunde interesdunari. Errekerimendu horretan, halaber, honako hau adieraziko dio: errekerimendua betetzen ez badu, eskabideari uko egin diola ulertuko dela, 30/1992 Legearen 42. artikuluari jarraiki emandako ebazpenaren ondoren.

**8. artikulua.**– Diru-laguntza emateko irizpide objektiboak.

Diru-laguntzak emateko edo ukatzeko, lehiaketaren prozedura erabiliko da eta honako irizpide ponderatu hauek hartuko dira kontuan:

1.– Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, erakundearen gaitasuna eta antolamenduegitura kontuan izanik. Gehienez 25 puntu.

2.– Proiektuaren kalitatea eta zehaztasun zientifikoa. Gehienez 20 puntu.

3.– Proiektuaren gizarte-interesa. Gehienez 20 puntu.

4.– Proiektua edo jarduera erakunde batek baino gehiagok egin izana edo beste administrazio publikoren batek esku hartu izana. Gehienez 15 puntu.

5.– Jardueraren edo proiektuaren berri gizarte-komunikabideetan hedatzeko ahalmena eta hezkuntzamaila guztietan eragiteko aukera. Gehienez 10 puntu.

6.– Guztira, gehienez 90 puntu emango dira.

**9. artikulua.**– Laguntzen kudeaketa eta proiektuen kontrola eta jarraipena.

Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak kudeatzeko egin

fuentes de financiación para el mismo fin, cuantía de la misma y, en su caso, de las solicitudes de ayuda pendientes de resolución.

k) Alta de tercero debidamente cumplimentada.

l) Certificado de inscripción en el registro correspondiente.

m) Declaración jurada de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– En el caso de que una misma entidad presente más de una solicitud, la documentación común a todas ellas solo deberá presentarse una vez.

**Artículo 7.**– Subsanación de defectos en las solicitudes presentadas.

Si presentada solicitud se advirtiera por parte de la Dirección de Bienestar Social la existencia de algún defecto u omisión, requerirá a la asociación o entidad interesada para que los subsane en un plazo de diez días, con indicación de que de no hacerlo así se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución dictada al efecto en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992.

**Artículo 8.**– Criterios objetivos para la concesión de la subvención.

Para la concesión o denegación de subvenciones se seguirá el procedimiento de concurso y se tendrán en cuenta los siguientes criterios de concesión ponderados:

1.– Viabilidad técnica y económica del proyecto, atendida la capacidad y estructura organizativa de la entidad. Hasta 25 puntos.

2.– Calidad y rigor científico del proyecto. Hasta 20 puntos.

3.– Interés social del proyecto. Hasta 20 puntos.

4.– La realización del proyecto o actividad por más de una entidad, o la implicación de alguna otra administración pública. Hasta 15 puntos.

5.– La capacidad divulgativa en los medios de comunicación social y su posibilidad de incidencia en los distintos niveles de la enseñanza. Hasta 10 puntos.

6.– La puntuación total máxima será de 90 puntos.

**Artículo 9.**– Gestión de las ayudas y control y seguimiento de los proyectos.

Corresponderá a la Dirección de Bienestar Social la realización de las tareas de gestión de las subvenciones

beharrekoak egitea. Era berean, aurkeztutako proiektuen kontrola eta jarraipena egingo du. Horretarako, egoki derizkion ikuskapen guztiak egin ahal izango ditu, proiektuak egoki gauzatuko direla bermatzearen. Horri dagokionez, erakunde eta elkarte onuradunek eskatzen zaizkien dokumentazio eta informazio guztia aurkeztu beharko dute nahitaez.

**10. artikulua.**— Eskabideen azterketa eta ebazpen-proposamena.

1.— Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, ebaluazio-batzorde bat eratuko da. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: Gizarte Ongizateko zuzendariak —batzordeburua izango da— eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko bi teknikaririk —Gizarte Gaietako sailburuordeak izendatuko ditu—.

2.— Ebaluazio-batzordeak, berriz, aurkezturiko eskabideei buruzko ebazpen-proposamena igorriko dio Gizarte Gaietako sailburuordeari. Bertan, balioespena bilduko da, 8. artikuluko irizpideei jarraiki.

3.— Aurkeztutako dokumentazioa eta ebaluazio-batzordearen txostena aztertu ondoren, diru-laguntzak emateari buruzko ebazpena emango du Gizarte Gaietako sailburuordeak.

4.— Diru-laguntzei buruz ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Ebazpena posta ziurtatuaren bidez jakinaraziko zaio interesdunari, eta, gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jende guztiak izan dezan haren berri. Ebazteko eta jakinarazteko epea amaitu eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskabidea ukatuztat emango da.

5.— Esanbidezko ebazpenak ez du administrazio-bidea agortuko, eta interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean, betiere ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita.

6.— Laguntzak lehiaketa-prozedura bidez emango dira, eskabideen balioespenean lortutako puntuazioen handienetik txikienerako ordenari jarraiki eta puntuazio bakoitzarentzat alde aurretik kalkulaturako zenbatekoarekin, 3. artikuluko hirugarren puntuan jasotako formularen arabera eta 3. artikuluan laguntzetara bideratutako guztizko diru-esleipena agortu arte. Ezin izango da deialdian zehazturiko zenbatekotik gorako diru-laguntzarik eman, 3.2. artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik.

7.— Ebaluazio-batzordeko buruak, egoki deritzonean, ebaluatu beharreko gaiari buruzko adituak eraman ahal izango ditu batzordera, beren iritzia eman dezaten. Aditu horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

**11. artikulua.**— Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan bilduriko diru-laguntzen onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte nahitaez:

previstas en la presente convocatoria. También efectuará el control y seguimiento de los proyectos presentados, para lo cual podrá realizar las inspecciones que considere oportunas en orden a garantizar su correcta ejecución. A tales efectos las entidades y asociaciones beneficiarias estarán obligadas a facilitar cuanta documentación e información les sea solicitada.

**Artículo 10.**— Análisis de las solicitudes y propuesta de resolución.

1.— Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una comisión de evaluación, formada por la Directora de Bienestar Social, que la presidirá y dos personas técnicas del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, designadas por el Viceconsejero de Asuntos Sociales.

2.— La comisión de evaluación remitirá al Viceconsejero de Asuntos Sociales propuesta de resolución sobre las solicitudes presentadas, que contendrá la valoración de acuerdo a los criterios del artículo 8.

3.— A la vista de la documentación presentada y del informe de la comisión de evaluación, el Viceconsejero de Asuntos Sociales resolverá sobre la concesión de las subvenciones.

4.— El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las subvenciones será de tres meses, a partir del día siguiente a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes. La resolución se notificará por correo certificado a la persona interesada, sin perjuicio de que, para general conocimiento, se publique también en el Boletín Oficial del País Vasco. Si transcurrido el plazo de resolución y notificación no se hubiera notificado resolución expresa, la solicitud se entenderá desestimada.

5.— Contra la resolución expresa, que no agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso de alzada ante el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente de su notificación.

6.— Las ayudas se concederán por el procedimiento de concurso, en orden descendente de la puntuación obtenida en la valoración de las solicitudes y por la cuantía precalculada para cada una de ellas conforme a la fórmula recogida en el punto tercero del artículo 3 y hasta el agotamiento de la dotación total destinada a las ayudas en el artículo 3. No podrán concederse subvenciones por cuantía superior a la determinada en la convocatoria salvo lo previsto en el artículo 3.2.

7.— La presidenta de la comisión de evaluación podrá, cuando lo estime necesario, incorporar a ésta, con voz pero sin voto, la opinión de expertos en la materia objeto de evaluación.

**Artículo 11.**— Obligaciones de los/as beneficiarios/as.

Los/as beneficiarios/as de las subvenciones contempladas en la presente orden están obligados/as al cumplimiento de las siguientes condiciones:

1.– Helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatzeta edo diru-laguntzaren xedearen alde jardutea eta hori behar bezala egiaztatzea Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean.

2.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari dagozkion egiaztatzeko jardunen pean jartzea, baita Kontrol Ekonomiko eta Finantzarioko Bulegoari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo beste organo eskudunei dagozkien ekonomia- eta finantza-arloko jardunen pean ere, aipaturiko jardunetan eskatzen zaien dokumentazio guztia aurkeztuta.

3.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari helburu bererako edozein erakunde publiko edo pribaturen beste edozein laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabide lortu izanaren berri ematea, baita diru-laguntza emateko baldintzetan izandako edozein aldatetaren berri ere. Jakinarazpen hori aipaturiko egoeraren berri izan bezain laster egingo da, eta, nolana ere, diru-laguntza justifikatu baino lehen.

4.– Helburu bera izanik, diru-laguntzaren erabileran izandako edozein aldateta proposatzea Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, hark onar dezan.

5.– Aplikatu beharreko araudian eskatzen den dokumentazioa izatea, egiaztatze- eta kontrol-ahalmenak egoki baliatzea bermatzearen.

6.– Jasotako fondoaren erabileraren egiaztagiria gortetzea, egiaztatuta eta kontrola daitezkeen bitartean.

7.– Indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan, jasotako fondoak itzultzea, horretarako emandako ebazpenaren ondoren.

8.– Jardunak sustatzeko eta hedatzeko jardura gutietan jardura horiek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak diruz lagundu dituela aipatzea.

9.– Diru-laguntzen erregimenaren ondorioz sortutako eta aipatu ez den beste edozein betebeharrak betetzea.

### **12. artikulua.**– Jabetza intelektualaren eskubideak.

Diru-laguntzen onuradunek diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren bidez sorturiko obra usiatzeko eskubideak bost urtez lagako dizkiote Eusko Jaurlaritzari, batez ere obra hori kopiatzeko, banatzeko, jendaurrean ezagutzera emateko eta eraldatzeko eskubideak, eta Eusko Jaurlaritzak pertsona edo erakunde onuradunarekin batera baliatu ahal izango ditu eskubide horiek. Nolanahi ere, obraren egilea aipatuko da.

### **13. artikulua.**– Diru-laguntzaren justifikazioa.

Justifikazioa aurkezteko epea 2010eko otsailaren 28an amaituko da.

1.– Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamente la subvención y acreditarlo debidamente ante el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

2.– Someterse a las actuaciones de comprobación que correspondan al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, a las de control económico y financiero que corresponda a la Oficina de Control Económico y Financiero, al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas o a otros órganos competentes, aportando toda la documentación que le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

3.– Comunicar al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales la obtención de cualquier otra ayuda, subvención, ingreso o recurso, para la misma finalidad, procedente de cualquier entidad pública o privada, y cualquier alteración de las condiciones en las que se otorgó la subvención. Esta comunicación se realizará tan pronto como se conozca y en todo caso antes de la justificación de la subvención.

4.– Proponer, para su autorización al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales cualquier cambio que, dentro de la misma finalidad, se pueda producir en el destino de la subvención.

5.– Disponer de la documentación exigida por la normativa que le sea de aplicación, con el fin de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

6.– Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, mientras puedan ser objeto de comprobación y control.

7.– Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos previstos en la normativa vigente, previa resolución dictada al efecto.

8.– Incorporar en todas las actividades de promoción y difusión de actuaciones que éstas están subvencionadas por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

9.– Cumplir cualquier otra obligación no mencionada que se derive de la normativa sobre régimen de las subvenciones.

### **Artículo 12.**– Derechos de propiedad intelectual.

Los beneficiarios de las subvenciones cederán al Gobierno Vasco, durante un plazo de cinco años, los derechos de explotación de la obra resultante del proyecto a actividad subvencionada, y en particular los de reproducción, distribución, comunicación pública y transformación, que podrá ejercer en concurrencia con la persona o entidad beneficiaria. Se hará constar en cualquier caso la autoría de la obra.

### **Artículo 13.**– Justificación de la subvención.

El plazo para presentar la justificación concluirá el 28 de febrero del 2010, y deberá incluir:

a) Egindako jardueren memoria, era horretan jarduerak egin direla justifikatuko da, baita diru-laguntza emateko oinarri diren baldintzak betetzen direla ere.

b) Diruz lagundutako jarduerari dagozkion diru-sarrerei eta gastuei buruzko memoria ekonomiko zehatzia.

c) Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak emandako zenbatekoagatikoko gastuaren ziurtagiri originalak, edo kausa justifikatua badago (idazki bidez justifikatuko da), gastuen kopia konpultsatua.

d) Helburu bererako bestelako finantziazio-iturririk ote dagoen egiaztatzen duen zinpeko aitortpena, finantziazioaren zenbatekoa, fondo horien jatorria eta diruz lagundutako jardueran erabili den modua eta, hala badagokio, ebazteke dauden laguntza-eskabideak egiaztatzen dituen.

e) Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren egiaztagiriri eguneratuak –eskabidea aurkezten den eguna baino, gehienez, hiru hilabete lehenago emanak– bigarren zatia ordaintzeko eskatzen denean erakunde horiekin dituzten betebeharrak beteta dauzkatela erakusteko, betiere 6.1.e) artikuluan ezarritako moduan.

**14. artikulua.**– Ordaintzeko agindua.

Ordainketa honela zatiturik egingo da:

% 75 diru-laguntza ematean eta gainerako % 25a aurrekontu osoari dagozkion gastuen % 100 egin izanaren justifikazioa egiaztatzen ondoren.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Agindu honetan esanbidez aurreikusi ez diren kasu guztietan, honako hauetan bilduriko aurreikuspenak aplikatuko dira: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan.

**Bigarrena.**– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren bihar-munean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 11.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,  
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

a) Una Memoria de las actividades realizadas, justificando de este modo la realización de las mismas y el cumplimiento de las condiciones que fundamentan su concesión.

b) Una Memoria económica detallada de ingresos y gastos correspondientes a la actividad subvencionada.

c) Justificantes originales del gasto por el importe recibido de la Dirección de Bienestar Social o cuando concurra causa justificada (que se justificará mediante escrito) copia compulsada de los mismos.

d) Declaración jurada de la existencia o no de otras fuentes de financiación para el mismo fin, cuantía de la misma, procedencia y la aplicación de estos fondos a la actividad subvencionada y, en su caso, de las solicitudes de ayuda pendientes de resolución.

e) Certificaciones actualizadas, emitidos con no más de tres meses de antelación a la fecha de la solicitud, de la Hacienda Foral y de la Seguridad Social que acrediten, a la fecha de la petición del segundo pago, el cumplimiento de las obligaciones contraídas con dichos organismos, de la forma establecida en el artículo 6.1.e).

**Artículo 14.**– Ordenación del pago.

La ordenación del pago se hará fraccionado de la siguiente manera:

El 75% se abonará en el momento de la concesión y el 25% restante, previa verificación de la justificación de haberse efectuado el 100% de los gastos del presupuesto completo.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– En todo aquello no previsto expresamente en la presente orden serán de aplicación las previsiones contenidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

**Segunda.**– La presente orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de marzo de 2009.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,  
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

I. ERANSKINA

OHARRA: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak jakinarazten dizu inprimaki hau betetakoan lortutako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko direla, Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa kontuan izanik.

Fitxategi horretan bildutako datuak ezin izango zaizkie hirugarren batzuei laga; gainera, fitxategiaren erabilera, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak sustatutako laguntzak kudeatzearen erabilera eskusiboarekin dago lotuta.

Nahi izanez gero, Legean aurreikusitako eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, fitxategi horren arduradun den Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari idazki bat igorrita (helbidea: Donostia kalea, 1, 01010 Gasteiz).

1.– Deialdiaren datuak.

Deialdia egin duen saila: Etxebizitza eta Gizarte Gaiak.

Deialdiaren izena: Memoria Historikoa berreskuratzea.

EHAA zk.:	Data:
-----------	-------

2.– Eskatzailearen identifikazio-datuak.

Izena:	IFZ:
Helbidea:	Posta-kodea:
Herria:	Probintzia:
Telefono zenbakia:	Helbide elektronikoa:
Ordezkaria (izena eta kargua):	
Helbidea:	NAN.:
Herria:	Telefono zenbakia:

3.– Eskatutako diru-laguntza.

Proiektuaren edo jardueraren izena. Zenbatekoa

1.–	
2.–	
3.–	

4.– Honako hau adierazten dut: eskatzaileak deialdian eskatzen diren eskakizun guztiak betetzen dituela.

5.– Deialdiko arauak beteko ditudala eta eskatzen zaizkidan argibideak eta agiriak emango ditudala agintzen dut.

6.– Deialdian eskatutako dokumentazioa aurkezten dut, atxikitako zerrendaren arabera.

\_\_\_\_\_, 2009ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_(a)

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentuen zerrenda (markatu eskabideari atxikitako dokumentuak).

- Eskabide-orria (I. eranskina) behar bezala beteta.
- Egin beharreko jarduera azaltzeko memoria zehatza.
- Proiektuari dagozkion sarrera eta gastuen aurrekontua.
- Beste erakunde batzuek proiektuan parte hartzen dutela egiaztatzeko dokumentazioa, egoera hori gertatzen bada.
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri original eguneratuak edo kopia konpultsatuak –eskabidea aurkezten den eguna baino, gehienez, hiru hilabete lehenago emanak– zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean dituela frogatzen dutenak. Irabazi-asmorik gabeko Erakundeak Gizarte Segurantzaren sisteman enpresaburu gisa erregistratuta ez badaude, idazki bat aurkeztu beharko dute erakunde horietako legezko ordezkariak sinatua. Idazki horretan erantzukizun-aitorpena egingo dute eta adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko edo Gizarte Segurantzaren ordezkari sistemekiko betebeharretan egunean daudela. Nolanahi ere, diru-laguntza emateko, egiaztatzeko eta ordaintzeko fase guztietan gai horri buruz eskatzen zaizkion egiaztatgiri guztiak aurkeztu beharko ditu onuradunak.
- Erakundearen IFZ.
- Eskatzaileak erakundearekiko duen legezko ordezkariaren egiaztatgiri.
- Erakundearen legezko ordezkariaren NANA.
- Erakundearen estatutuak eta eraketa-akta.
- Helburu bererako bestelako finantziario-iturririk ote dagoen egiaztatzen duen zinpeko aitortpena eta, hala badagokio, ebatzteko dauden laguntza-eskabideak egiaztatzen dituenak.
- Hirugarrenaren alta, behar bezala beteta.
- Dagokion erregistroan erregistratuta dagoela adierazten duen egiaztatgiri.
- Zinpeko aitortpena, zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela adierazten duena, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean ere ez dagoela, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedaturikoari jarraiki.

ANEXO I

NOTA: La Dirección de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco le informa que sus datos personales obtenidos al cumplimentar este formulario van a ser incorporados para el tratamiento de un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.

El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas promovidas por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Bienestar social, responsable de dicho fichero, c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

1.- Datos de la convocatoria.

Departamento convocante: Vivienda y Asuntos Sociales.

Denominación convocatoria: Recuperación de la Memoria Histórica.

BOPV n.º	Fecha:
----------	--------

2.- Datos de identificación de el/la solicitante.

Nombre:	NIF:
Domicilio:	Código postal:
Localidad:	Provincia:
Teléfono:	Correo electrónico:
Representante (nombre y cargo):	
Domicilio:	DNI:
Localidad:	Teléfono:

3.- Subvención solicitada.

Denominación del proyecto o actividad.

Cuantía

1.-	
2.-	
3.-	

4.- Declaro que el/la solicitante reúne todos los requisitos exigidos en la convocatoria.

5.- Acepto el compromiso de someterme a las normas de la convocatoria y de facilitar la información y documentación que se solicite.

6.- Presento la documentación exigida en la convocatoria según relación adjunta.

En \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2009

*Relación de la documentación aportada por el /la solicitante (señalar los documentos que se acompañan a la solicitud).*

- Impreso (anexo I) de solicitud debidamente cumplimentado.*
- Memoria explicativa y detallada de la actividad a realizar.*
- Presupuesto detallado de ingresos y gastos del proyecto.*
- Documentación que acredite la implicación de otras entidades en el proyecto, de existir ésta.*
- Certificaciones actualizadas originales o copias compulsadas de la Hacienda Foral y Tesorería General de la Seguridad Social correspondientes, emitidos con no más de tres meses de antelación a la fecha de la solicitud, acreditativas del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social. En el supuesto de que las Entidades sin ánimo de lucro no estuvieran inscritas como empresarios en el sistema de Seguridad Social, deberán presentar un escrito suscrito por el representante legal de las mismas en el que efectuarán una declaración responsable, indicando que se encuentran al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social o con los sistemas alternativos de la Seguridad Social. No obstante, el/la beneficiario/a está obligado/a a presentar cuantas certificaciones sobre este extremo se le exijan durante todas las fases del procedimiento de concesión, justificación y liquidación de la subvención.*
- NIF de la entidad*
- Acreditación de la representación legal del/la solicitante respecto de la entidad.*
- DNI del/la representante legal de la entidad.*
- Estatutos y acta de constitución de la entidad.*
- Declaración jurada de la existencia o no de otras fuentes de financiación para el mismo fin, cuantía de la misma y, en su caso, de las solicitudes de ayuda pendientes de resolución.*
- Alta de tercero debidamente cumplimentada.*
- Certificado de inscripción en el registro correspondiente.*
- Declaración jurada de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*